

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
28/2010	R11/2013	2013/06/28	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Eragiketen bolumena. Arbitraje Batzordearen eskumenak

R 11/2013 ebazpena
28/2010 espedientea

Vitoria-Gasteizen, 2013ko ekainaren 28an

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordeak, Carlos Palao Taboada jauna batzordeburu duela eta Isaac Merino Jara eta Francisco Javier Muguruza Arrese jaunak batzordekide dituela, honako erabakia hartu du:

ERABAKIA

1 ERAKUNDEAK (IFZ: (LETRA)ZZZZZZZZ) Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ondorioetarako 2009ko ekitaldian egindako eragiketa jakin batzuei Ekonomi Itunean ezarritako lotura-puntuak aplikatzearen ganean Zerga Administrazioko Estatu Agentziak Bizkaiko Foru Aldundiaren aurrean planteatu zuen gatazkari buruz. Gatazka hori Arbitraje Batzorde horretan tramitatzen ari da 28/2010 espediente-zenbakiarekin.

I. AURREKARIAK

1. Gatazka hau Zerga Administrazioko Estatu Agentziak (ZAEA) bere Zuzendari Nagusiaren 2010eko urriaren 7ko idazki baten bidez planteatu zuen. Idazki hori Arbitraje Batzorde honen sarreran hurrengo egunean erregistratu zen. Idazki horretan jarraian laburbilduta adieraziko diren izatezko aurrekariak azaldu ziren:

- 1 ERAKUNDEA sozietateak (aurrerantzean 1 ERAKUNDEA) 2008ko ekitaldian hurrengo taulan adierazita dauden eragiketa-bolumenen ehunekoak aitortu zituen lurralde batzuetan eta besteetan:

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
28/2010	R11/2013	2013/06/28	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Eragiketen bolumena. Arbitraje Batzordearen eskumenak

LURRALDEA	EHUNEKOA
Estatua	1 EHUNEKOA
Bizkaia	2 EHUNEKOA
Gipuzkoa	3 EHUNEKOA
Araba	4 EHUNEKOA
Nafarroa	5 EHUNEKOA

- 2010eko otsailaren 1ean 1 ERAKUNDEAK 2009ko ekitaldiko BEZaren 303 ereduaren autolikidazioa aurkeztu zuen, eta emaitza itzultzekoa izan zen: 1 ZENBATEKOA euro.

- 2010eko ekainaren 17an ZAEAK egiaztapen mugatuaren prozedura hasteko komunikazioa egin zuen, aurreko aitorpenean "urteko erregularizazioaren emaitza" gisa aitortutako kopurua bidezkoa zen ala ez egiaztatzeko. Komunikazio hartan 1 ERAKUNDEARI agindeia egin zitzaion, zera aurkez zezan: "Estatuari egotzi ahal zaion zerga-ehunekoaren murrizketaren justifikazioa, eragiketen bolumenaren kalkulua zehaztuta. Erabilitako irizpideak adierazi behar dira eta kalkuluetan erabilitako lotura-puntuak zerrendatu eta azaldu beharko dira".

- 1 ERAKUNDEAK agindei horri erantzun zion, 2010eko uztailaren 2ko idazkiarekin. ZAEAN hilaren 5ean jaso zen idazki horretan, sozietate hark egindako eragiketei dagozkien lotura-puntuak aplikatzean jarraitu ziren irizpideak azaldu ziren.

- 2010eko abuztuaren 13an, ZAEAK Bizkaiko Foru Aldundiari inhibizio errekerimendua jakinarazi zion, bere eskumenak baliatuz 1 ERAKUNDEAK egindako lotura-puntuen interpretazioa eta erakunde horren BEZan Administrazio bakoitzari dagozkion tributazio-proporzioak

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
28/2010	R11/2013	2013/06/28	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Eragiketen bolumena. Arbitraje Batzordearen eskumenak

alda zitzan, 2009ko ekitaldiari dagokionez. Hain zuzen ere, errekerimendu-idazkiaren Zuzenbidezko Bigarren Oinarrian, ZAEAk zera dio: "1 ERAKUNDEA zerga-egoitza Bizkaian daukan sozietatea da, eta 2008ko ekitaldian aitortutako tributazio-ehunekoen arabera, ekitaldi hartan bere eragiketen % 75 baino gehiago ez zituen egin Lurralde Erkidearen barruan. Beraz, 2009ko ekitaldian lurralde bakoitzean egindako eragiketabolumena egiaztatzeko ikuskapen-eskumena BFArena da".

- 2010eko irailaren 13an ZAEAn Bizkaiko Foru Aldundiaren idazkia jaso zen, aipatu den errekerimendua gaitzesteko.

2. Arbitraje Batzordeak gatazka izapiderako onartu zuen 2012ko urriaren 29an, eta Bizkaiko Foru Aldundiari dei egin zion, alegazioak egin zitzan. Izapide hori betetzeko, Aldundiak Ekonomia eta Finantza Saileko Koordinaziorako eta Laguntza Teknikorako Zuzendariordearen 2013ko urtarrilaren 10eko idazkia bidali zuen.

3. Espedientea agertu ondoren, alegazioak egin zituzten ZAEAk 2013ko otsailaren 26ko idazki baten bidez, eta Bizkaiko Foru Aldundiak eta 1 ERAKUNDEAk 2013ko martxoaren 14ko idazki banarekin.

II. ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

1. Gatazka planteatzeko idazkiaren Zuzenbidezko Lehenengo Oinarrian, ZAEAk gatazkaren xedea honela azaltzen du: "Gatazka hau Itunean kontagailuen alokairurako nahiz garraiatu ahal diren ondasun higigarrien emateetarako aurreikusitako lotura-puntuen interpretazioari buruz planteatzen da, energia elektrikoaren horniduraren kasu zehatzean, bereziki, energia elektrikoa tarifa integralaren mendean dauden bezeroei saltzeari dagokionez,

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
28/2010	R11/2013	2013/06/28	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Eragiketen bolumena. Arbitraje Batzordearen eskumenak

halakoak egiten baititu 1 ERAKUNDEAK. Hori guztia 2009ko ekitaldiko BEZaren aitortpenari dagokio".

2. Egiartzapen mugatuaren prozedura hasteko komunikazioan egindako agindeiari erantzuteko 2010eko uztailaren 2an bidalitako idazkian, 1 ERAKUNDEAK azaldu zuen Ekonomi Itunaren lotura-puntuak bere eragiketei aplikatu zizkiela irizpide hauen arabera:

- Kontagailuen alokairua: Eragiketen kokalekua (zerbitzuak emateko araua, Ekonomi Ituneko 28.Bat.B.1. artikulua): Alokaturako neurketa-ekipamenduen kokaleku fisikoa. Zalantzarik gabe, 1 ERAKUNDEAK aipatu nahi zuen agindua 28.Bat.B.1 artikulua zen.

- Banaketa-jarduera: Eragiketen kokalekua (garraio zerbitzuen araua, Ekonomi Ituneko 28.Bat.C.2. artikulua): Subjektu pasiboaren helbidearen lekua.

Adierazi behar da 1 ERAKUNDEAK jarduera horri esleitutako eragiketa-bolumena honako partida hauen batura dela:

- Sarbide-tarifagatiko eta zerbitzu osagarriengatiko fakturazioa gehi
- Tarifa integralagatiko fakturazioaren 6 EHUNEKOA.

Kalkulu horien arabera, jarduera horri dagokion eragiketa-bolumenaren 7 EHUNEKOA erakundeak Bizkaiko Foru Aldundiari esleitu zion.

- Energiaren salmenta: Eragiketen kokalekua (ematea egiten duenak berak eraldatu dituen gauzako ondasunen araua, Ekonomi Itunaren 28.Bat.A.1.a artikulua): Energiaren azken eraldaketa-prozesua egiten den lekua, bezeroarentzako energia-hornidura egiten deneko guneen

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
28/2010	R11/2013	2013/06/28	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Eragiketen bolumena. Arbitraje Batzordearen eskumenak

kokalekua, hain zuzen ere. Erakundeak zalantzarik gabe Itunaren 28.Bat.A.1.a artikulua aipatu nahi zuen.

- Gainerako sarrerak: Eragiketen kokalekua (zerbitzuak emateko araua, Ekonomi Ituneko 28.Bat.B.1.a artikulua): 1 ERAKUNDEko langileek zerbitzuak ematen dituzteneko lekua. Zalantzarik gabe, erakundeak aipatu nahi zuen agindua 28.Bat.B.1 artikulua zen.

3. ZAEA ez dago ados 1 ERAKUNDEAk Ekonomi Ituneko lotura-puntuak aplikatzeko irizpideekin. Desadostasun horiek gatazkaren planteamendu-idazkian azaldu dira, eta honako hauek dira:

- Kontagailuen alokairua: ZAEAREN iritziz ondasun higiezin batekin zuzenean eta berehala lotutako zerbitzua da, kontagailua; beraz, aplika daitekeen lotura-puntua Ekonomi Itunaren 28.Bat.B.2 artikuluan aurreikusita dagoena izango litzateke eta zerbitzua errentamenduaren xede den kontagailua dagoen lekuan eman dela ulertuko da.

- Energia banatu eta saltzeko jarduera: ZAEAK hasieran gaitzetsi egiten du 1 ERAKUNDEAk tarifa integralagatik egindako fakturazioaren zatikapena. Bigarrenez zera dio: energiaren salmentari aplikatu ahal zaion lotura-puntua Ekonomi Itunaren 28.Bat.A.1. artikuluan [*rectius*: 28.Bat.A.1 artikulua] eskuratzailaren esku jartzeko garraiatu behar diren gauzako ondasun higigarrien emateetarako ezartzen dena da, hau da, banaketa edo garraioa hastean ondasunak dauden lekua, eta ez artikuluan horren Bat.A.1.a ataleko arau berezia, erakundeak aplikatutakoa, hau da, azken eraldaketa-prozesua egin deneko lurraldea. ZAEAREN esanetan, horniduraren xede den energia, banatzen hasteko unean, goi tentsiotik behe tentsiorako transformagailuan dago.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
28/2010	R11/2013	2013/06/28	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Eragiketen bolumena. Arbitraje Batzordearen eskumenak

4. Gatazka honen xede diren auziak aztertzen hasi baino lehen, zera ekarri behar da gogora: Arbitraje Batzorde honen zeregina ez da gai teoriko edo abstraktuak ebaztea, baizik eta Ekonomi Itunak Administrazio batzuen eta besteen artean egiten duen finantza-eskumenen banaketarako garrantzitsuak direna soilik ebaztea. Hala esan dugu hainbat aldiz; azken aldian, gure R 10/2013 zenbakidun ebazpenean, egun honetan bertan, 27/2010 espedientean, 12/2010 espedientearen barruko 2013ko urtarrilaren 25eko R 1/2013 ebazpenean esandakoa berretsi genuen. Han esan genuenez, "Arbitraje Batzordearen zereginak osatzen dituzten arauetatik ondorioztatzen da bere ahalmenetako bat ez dela gatazka zehatzekin lotuta ez dauden Ekonomi Itunaren interpretazioko gai abstraktuak ebaztea. Hori ondorioztatzen da Ekonomi Itunaren 66. Artikulutik. Artikulu horrek 'auziak ebaztea' edo 'auziak ezagutzea' dio, eta orokorrean 'eskumenen gatazka' aipatzen du. Ondorio berbera ateratzen da EIABAREN 3 eta 10, 11 eta 12. artikulua aztertuta, horiek guztiek eskumenen gatazkak aipatzen dituztelako. Hori da EIABAREN 13. Artikuluak aurreikusten duen kasua, gatazka planteatzeko eskakizun gisa inibizio errekerimendua formulatzea eskatzen baitu".

Ondorio berbera ateratzen da abenduaren 28ko Errege Dekretu bidez onetsitako Ekonomi Ituneko Arbitraje Batzordearen Araudiaren (EIABA) 10. artikulua aztertuta. ZAEAK artikulua hori bera aipatzen du bere legitimazioa babesteko egindako planteamendu-idazkiaren Zuzenbidezko hirugarren Oinarrian. Hain zuzen ere, aipatu den EIABAREN artikulua gatazka bat sustatzeko aukera ematen dio Administrazio bati, bere c) letraren arabera, BEZAREN baterako tributazioaren kasuetan, "administrazio bakoitzari dagokion zatia zuzena ez dela irizten dionean", eta e) letraren arabera, "lotura-puntuen aplikazioa dela-eta, foru-aldundietako batean zergadun batek aitortutako eta ordaindutako tributu jakin baten ordainarazpena dagokiola irizten dionean, edo tributu horri buruz foru-aldundia zergadun hari zuzendu zaionean, zerga hori aitortu dezan edo ordain dezan". Beraz, arauzko manu horietatik zera

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
28/2010	R11/2013	2013/06/28	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Eragiketen bolumena. Arbitraje Batzordearen eskumenak

ondorioztatzen da: Arbitraje Batzordeak eztabaidatzen den auzia kontuan har dezan ondorioak egon behar dira lurralde bakoitzeko tributazioaren proportzioari dagokionez, eta lotura-puntu baten interpretazioa garrantzitsua izan behar da zerga bat ordainarazteko.

5. Arbitraje Batzorde honen eskumena mugatzen duen aurreko irizpide hori ZAEAk planteatutako auziei aplikatzearen ondorioz, gatazka honetatik kanpo utzi behar dugu kontagailuen alokairuari aplikatu ahal zaion lotura-puntuari dagokiona. Hori ezinbestean hutsal gisa kalifikatu behar da; izan ere, zerbitzu hori ondasun higiezin batekin zuzenean lotuta dagoela esatea eztabaidagarria dela alde batera utzita, mota horretako zerbitzuei dagokien lotura-puntua aplikatzearen ondorioa zerbitzuen lotura-puntu orokorra aplikatzearen ondorio berbera da, behintzat kontagailuen alokairua kontagailua dagoen lekuan –hau da, higiezinaren kokalekuan– egiten dela ulertzen bada. Agian, ZAEAk bere tesiarekin lortu nahi duena zerbitzuen lotura-puntu orokorra ulertzeko modu baten aurka egitea da. Hain zuzen ere, ulertzeko modu horretan, kontagailuen alokairu-zerbitzuaren lotura-puntua zerbitzua ematen duen erakundean kokatzen du. Hala ere, hori ez da 1 ERAKUNDEAREN interpretazioa, Estatuari esleitzen diolako 2009an zerbitzu horregatik izandako fakturazioaren 8 EHUNEKOA; Bizkaiko Foru Aldundiaren interpretazioa ere ez da hori. Beraz, gai horri buruz ez dago Arbitraje Batzordeak aztertu beharreko eztabaidarik.

6. ZAEA ez dago ados 1 ERAKUNDEAK energia elektrikoaren emateari aplikatu dion lotura-puntuarekin, uste baitu energia elektriko hori ez dela eraldatu beharreko ondasun bat. Tesi hori Auzitegi Gorenaren Administrazioarekiko Auzietako Salak 7350/2002 errekurtsioan emandako 2008ko apirilaren 2ko epaian oinarritzen da. Aldiz, esaten du aplikatu ahal den lotura-puntua garraiatu ahal diren ondasun higigarriena dela, hau da, garraioa hastean energia dagoen lekua (Ekonomi Itunaren 28.Bat.A.1 artikulua, goiburuan). ZAEAREN esanetan, leku hori goi tentsiotik behe tentsiorako transformagailua da.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
28/2010	R11/2013	2013/06/28	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Eragiketen bolumena. Arbitraje Batzordearen eskumenak

2013ko urtarrilaren 10eko idazkiaren 19. Alegazioan Bizkaiko Foru Aldundiak dio 1 ERAKUNDEAK beti aplikatu duela eraldatu beharreko ondasun higigarriei buruzko lotura-puntua eta mota horretako azken prozesua hornidura-puntua dagoen lekuan gertatzen dela (fabrikan bertan, etxebizitzan, etab.), eta zera ere dio: "irizpide hori historian zehar ZAEAK onartu egin du, eta ez da auzitan jarri". Idazki horren 30. alegazioan, Bizkaiko Foru Aldundiak azaltzen du irizpide berbera ZAEAK berak aplikatu zuela 2001eko eta 2002ko ekitaldiei dagokien Sozietateen gaineko Zergaren egiaztapen eta ikerketan, eta ZAEAK denboran zehar sistematikoki mantendu duen irizpidea aplikatu beharko lukeela. Jarraian Bizkaiko Foru Aldundiak dioenez, energiaren banaketak irauten duen bitartean, eraldaketa bat baino gehiago egon daiteke; beraz, azken transformagailu elektrikoa fabrikan bertan, etxebizitzan edo instalazioan dago, eta transformagailu horrek egiten duena hain zuzen ere energia kontsumitzaileek behar duten tentsiora eraldatzea da.

2013ko otsailaren 26ko alegazio-idazkian ZAEA berriro ere aritzen da garraiatu ahal diren ondasun higigarriei aplikatu ahal zaien lotura-puntua energia elektrikoaren emateari aplikatzearen gainean, Ekonomi Itunaren 28.Bat.A.1 artikuluko goiburuan ezarrita dagoen bezala. Eta zera ere dio: transkribatutako manua behar bezala interpretatzeko "kontuan hartu behar da Ekonomi Itunak BEZ eredu jakin bat ezartzen duela: eredu horretan, eragiketak balio erantsia sortzen den unean kargatzen dira". Jarraian ZAEAK aipatu egiten du Auzitegi Gorenak 540/2009 errekurtsoko 2011ko apirilaren 13ko epaian ezarritako irizpidea. Irizpide horren arabera, ondasun higigarrien ematea gertatzen den lekua (ondasun horiek eman baino lehenago garraiatzen badira zein garraiatzen ez badira) balio erantsia sortzeko giza baliabide eta baliabide material nahikoak dauden hura da. Horretatik ZAEAK ondorioztatzen du tarifa integraleko bezeroentzako energia elektrikoaren emateak kokatzeko

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
28/2010	R11/2013	2013/06/28	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Eragiketen bolumena. Arbitraje Batzordearen eskumenak

"alderdi hauek baloratu beharko direla, besteak beste:

- Sozietatearen higiezinaren kokalekua (egoitzak, establezimenduak, bulegoak, sukurtsalak, goi tentsiotik behe tentsiorako transformagailuak, beteak beste).
- Jarduera hau egiten aritzen diren langileek beren zerbitzuak ematen dituzten lekua.

Elektrizitatea eskura jartzeko puntua kokatzen deneko lekua zehazteko, azaldu diren inguruabarrak hartu beharko dira kontuan".

Gauza bat kontuan hartzekoa da: aurreko ondorio hori kontraesanean dago energia elektrikoaren ematea egiteko lekua goi tentsiotik behe tentsiorako transformagailua dagoen lekuan dagoela esatearekin.

ZAEAk ez du datu bat ere aurkeztu, 2009ko ekitaldiko BEZa kontuan hartuta eragiketen bolumenean Administrazioek dauzkaten partaidetza-ehunekoen zenbaketari dagokionez bultzatzen dituen lotura-puntuaren ondorioak hasieran eta gutxi gorabehera zehaztu ahal izateko. Beraz, argi dago energia-emateei aplikatu ahal zien lotura-puntuaren inguruan planteatzen duen desadostasuna abstraktua dela. Horregatik, kontagailuen alokairuari buruz sortutako desadostasuna tratatu den bezala tratatu behar da, eta horrenbestez, Arbitraje Batzorde honek ez du kontuan hartuko.

7. ZAEAk Tarifa integralagatiko fakturazioa banaketari dagokion zati batean eta energia elektrikoaren salmentari dagokion beste zati batean bereiztea (1 ERAKUNDEAK bultzatzen duena eta Bizkaiko Foru Aldundiak onartzen duena) aurkaratu du, eta beraz, banaketa horren ondorioz lurralde batzuetako eta besteetako eragiketa-bolumenen ehunekoen zenbaketa ere bai. Arbitraje Batzorde honek lehenago ere azaldu du bereizketa hori Ekonomi Itunarekin bat

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
28/2010	R11/2013	2013/06/28	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Eragiketen bolumena. Arbitraje Batzordearen eskumenak

etortzearekin ados ez dagoela, zehazki 2013ko apirilaren 24ko R 7/2013 ebazpenean, 8/2008 eta 13/2010 espediente metatuetan; 2013ko maiatzaren 27ko R 8/2013 zenbakidunean, 1/2010 espedienteetan; eta 2013ko ekainaren 28ko R 10/2013 ebazpenean, 27/2010 espedienteetan; hain zuzen ere, horietara jotzen dugu.

Hori dela bide, Arbitraje Batzordeak

HAU ERABAKI DU:

Zera adieraztea:

- 1.) Kontagailuen alokairu jarduerari aplikatu ahal zaion lotura-puntuaren inguruan ZAEAk planteatutako auzia kontuan hartzea ez da bidezkoa.
- 2.) energia elektrikoaren emateei aplikatu ahal zaien lotura-puntuaren inguruan ZAEAk planteatutako auzia kontuan hartzea ere ez da bidezkoa.
- 3.) Tarifa integralagatik fakturazioa banaketari dagokion zati batean eta energia elektrikoaren salmentari dagokion beste zati batean bereiztea Ekonomi Itunaren kontrakoa da.

Ebazpen hori betetze aldera, ikuskapen-eskumena daukan Administrazioak zuzendu egingo ditu 1 ERAKUNDEAK (IFZ: (LETRA)ZZZZZZZZ) aitortutako eragiketa-bolumenaren ehunekoak, lurralde batzuetan eta besteetan egindako eragiketei dagokienez eta 2009ko ekitaldiko BEZaren ondorioetarako, tarifa integraleko bezeroentzako energia elektrikoaren hornidura ondasun higigarriak emateko eragiketa unitarioa dela ulertzen baita.